

BERRI OROKORRAK

2018ko ekainaren 21ean 37 zenbakia

1.-Ingeleseko irakurketa-liburuen bilketa

Hurrengo ikasturteari begira ingeleseko departamendutik, LH1eko eta LH2ko ikasleek **"Hocus and Lotus"** ipuinak ez erostea erabaki da. Geletan ale batzuk izango ditugu eta denek erabili ahal izango dituzte. Horretarako, eskertuko genizueke etxean izan edo erabiliko ez dituzuen ipuinak ikastolara ekartzea.

2.-Mugikor zaharren bilketa.

DBH 1eko ikasleek eskaera bat egin nahi dizuegu; ikaskide baten familiako batek gaixotasun oso arraroa du eta medikuek ez dakite nola sendatu. Gaixotasun horrek, gure organismoko parte diren zelulen mitokondriaren disfuntzioa eragiten du (zelulen mitokondriak organoek behar duten energiaren %90 sortzeko arduradunak dira) Ondorioz, eguneko 24 orduak norbaitekin pasa behar ditu.

Garai batean plastikozko tapoiak biltzen ziren bezala, **mugikor zaharrak behar ditugu** gaixotasuna ikertzeko eta sendabideak topatzeko. Informazio gehiago nahi baduzue, ikastolan kartelak jarri ditugu. Mugikorak uzteko kaxak ere ikastolan zehar daude. **Mesedez, lagun iezaguzue.**

OHARRAK ETAPAKA

**HE**

2 eta 3 urteko haurren gurasoentzat ohara.

Ekainaren 26an, asteartea, arratsaldeko **16:30ean HH 3ko gelan** (Alperroburu kalea, 5) gurasoekin bilera bat egin nahi dugu. Bertan, datorren ikasturteko **irakasleak ezagutzeaz** gain, 2018-19 ikasturte hasierako **egokitzapena** nola bideratuko dugun eta antolaketa orokorreko hainbat ohar emango ditugu.

Jangelako erabiltzaile izango zaretenok **17:15erako bertaratu**, orduan emango baitira gai horri lotutako azalpenak.

**HH**

1.-HH 5eko ikasleen familientzat oharrak.

- **Ekainaren 25ean**, astelehena, arratsaldeko **16:30ean jangelan**. gurasoekin bilera bat egin nahi dugu. Bertan, datorren ikasturteko **irakasleak ezagutzeaz** gain, Lehen Hezkuntzan azken urteetan **Konfiantzaren Pedagogiari jarraipena** emateko egin ditugun aldaketak azaldu nahi dizkizuegu.

- Ohartarazi nahi dizuegu, datorren ikasturtean **eskola-kirolean** izena emateko epea **ekainaren 21a** bitarte izango dela eta **informazioa eta izen-ematea LHko atalean** topatuko duzuela.

**LH**

1.-Galdutako arropak eta gauzak.

Ikasturtean zehar galdutako arropak eta gauzak Ageri-Aldeko eraikineko sarreran dauden kaxetan topa ditzakezue. Ikasturtea amaitzera doan honetan, kaxa horiek hustu beharrean gaude. Beraz, zuen seme-alabek zerbait galdu badute, begiratu bertan. Ekainaren 21ean, kaxetan geratzen dena birziklatzeko arropen ontzira eramango baitugu.

2.-2018/19 Eskola-kirola LH 1, 2, 3 eta 4.

OHARRAK:

Eskaintzen ez den kirolen bat egin nahiko bazenu edo zalantzarik baduzu, jar zaitezte Udarregi Ikastolako Eskola-Kirolako arduradunarekin harremanetan eskolakirola@udarregi.eus era idatziz.

IZEN-EMATEA:

Epea: **ekainak 21.**

IRAUPENA:

Eskola-kirolako ekintzak urritik maiatzera izango dira.

BALDINTZA:

Kiroldegiko bazkide izatea derrigorrezkoa da udal kirol-instalakuntzen erabilera egiten den kiroltan izena emateko (talde-kirolak, esku-pilota, judoa, igeriketa eta gimnasia erritmikoa).

KUOTAK:

Rural kutxa: IBAN ES45 3008 0259 1121 8354 1214

Izen-ematearekin batera ordainagiria entregatu beharko da. Kontzeptuan **ikaslearen izen-abizenak, egingo duen maila eta kirola** adieraziz.

Judo, igeriketa eta **gimnasia erritmikoaren** kasuan, izen-ematea eta kuotaren ordainketa **kiroldegian** egin beharko dituzue **irailean**. Informazioa kiroldegiko kortxoan ipintzen da.

- **AUREBENJAMIN ETA BENJAMIN KATEGORIA: LH1., 2., 3. eta 4. maila.**

Kirol aukerak:

-Zirimara - 2 egun:

Saioak: LH1, 2, 3 eta 4: asteartea eta ostegunetan 16:30 – 18:30)

Kuota: izen-ematearekin batera 170,00 €.

-Zirimara - egun bat:

Saioak: LH1 eta LH2: asteartean 16:30-18:30

LH3 eta LH4: ostegunetan 16:30-18:30

Kuota: izen-ematearekin batera 120,00 €.

-Euskal Dantzak: Usurbilgo Dantza taldeak kudeatzen du.

Saioak: Irailean bilera bat egiten da, izen-ematea, eguna eta ordua finkatzeko.

Kuota: kuotari buruzko informazioa dantza taldeak emango dizue.

-Esku Pilota: Usurbilgo Pilota elkarteak kudeatzen du.

Saioak: LH1 eta LH2: asteazkena eta ostiraletan 16:30-17:30

LH3: astelehena eta oasteazkenetan 17:30-18:30

LH4: astelehena 16:30-17:30 eta ostirala 18:30-19:30

Kuota: izen-ematearekin batera 120,00€ .

-Gimnasia Erritmikoa: Tximeleta gimnasia erritmiko taldeak eramaten du. Telf: 943 116 342 / 688 683 064

Saioak: LH1 eta LH2: astelehena eta asteazkenetan 16:45-17:45

LH3 eta LH4: astearte eta ostirala 16:45-17:45.

Hip-Hop: LH3 eta LH4: ostirala 17:45-18:45

-Igeriketa: Oiardo kiroldegian egiten da.

Saioak eta kuotak: Oiardo kiroldegian jaso dezakezue informazioa.

-Judo: Usurbilgo Judo elkarteak kudeatzen du.

Saioak: LH1 eta 2: astelehen eta asteazkenetan 17:00-18:00.

LH3 eta 4: astelehen eta asteazkenetan 18:15-19:15

Izen ematea: Oiardo kiroldegian judoko irakaslearen bitartez.

-Txirrindularitza: Interesa izanez gero, kirol-koordinatzaileak emango dizue informazioa.

-Xakea: **Saioak:** LH 1 osteguna 13:30-14:30.

LH 2 eta 3 asteazkena 13:30-14:30.

LH 4 asteartea 13:30-14:30

Kuota: izen-ematearekin batera 60,00€.

-Atletismoa: LH3 eta 4: **Saioak:** asteartetan 17:00-18:15 Udarregi ikastolako patioan.

Kuota: 80,00€ hiruhileko. Urrian jasojo duzue informazioa.

-Antzerkia: interesa duenak idatzi dezala ixabel.agirresarobe@gmail.com edo 675 712 383ra deitu.

-Bertso-eskola: LH 2, 3 eta 4: **Saioak:** Astean behin 13:30-14:30 (eguna zehazteke)

Kuota: 65,00€. Izen-ematea 608 768 539 zenbakira whatsAppa bidali

ikaslearen izen-abizenak, egingo duen maila adieraziz eta saioaren eguna proposatuz.

-Pintura: Interesa duenak dei dezala 609 413 883 telefonora.



IZEN-EMATE ORRIA

IZEN ABIZENAK:

MAILA	LH 1	LH 2	LH 3	LH 4
-------	------------	------------	------------	------------

KIROL AUKERAKETA: (X batez adierazi egingo dituzun kirolak)

ZIRIMARA (astean 2 egun)		JUDO		
ZIRIMARA (astean egun bat)		EUSKAL DANTZAK		
XAKEA		ESKU-PILOTA		
ATLETISMOA		ANTZERKIA		
IGERIKETA		BERTSOLARITZA		
GIMNASIOA ERRITMIKOA		PINTURA-ESKULANAK		

3.-Datorren ikasturtean LH5. eta LH6. maila egingo duten ikasleen familientzat informazioa.

Datorren ikasturtean, LHko 5. eta 6. mailetan EKI txertatuko da bere osotasunean. Proiektu berri horretan, liburuetan ez dago idatzi beharrik (ingeleskoetan eta jarduera fitxetan izan ezik). Horregatik eta liburuaren erosketatik bideratu behar izan dela baliatuz, proposamen berri bat adostu dugu HITZ AHOrekin batera.

Proposamen horren baitan, orain arte parte hartzen ez zenuten 5-6. mailako familia guztiak LIBURUTRUK* sistemaren barruan geratuko zarete, datorren ikasturtetik aurrera. Dena den, norbaitek parte hartu nahiko ez balu, beheko eranskina bete eta tutoreari helarazi beharko dio.

Antolaketa horren arabera, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz ikastola eta HITZ AHO arduratuko dira.

Sistema horretan parte hartzeak onura ekonomikoa dakar familientzako. Honen baitan, iaz LIBURUTRUKen lehengo aldiz sartu ziren LH 6ko familiek 137,10€ ordaindu zituzten. Berriz, parte hartzen ez zutenek, 183€ ordaindu zituzten**. Antolaketa horretako lehen urtean sarrera kuota bat ordaintzen da eta bigarren ikasturtetik aurrera izaten da onurarik handiena. Parte hartzaileen arabera, ikasturte batetik bestera kuoten kopurua aldakorra da.

***ZER DA LIBURUTRUK?**

2010-11 ikasturtean liburuak berrerabiltzeko sistema martxan jarri genuen Udarregi ikastolan, LIBURUTRUK izenekoa. Hitz Aho Guraso elkarteak bere gain hartu zuen sistema berria eta gurasoen artean aurrera eramaten da. Ikastolan antolatzen da dena eta irakasleen laguntza eskatzen da ekainaren azken egunean liburuak jasotzeko, oharrak banatzeko, ikasleei eta gurasoei informazioa emateko.

Sistema horren bidez testu liburuak ahal den ikasturte gehienetan erabiliko direla bermatuko nahi da. Sistema hau erabiltzeko arrazoiak:

1- Gure seme-alaben heziketa hobetzeko: zenbait balore garatzen lagunduko diegu: besteekiko

elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua.

2- Ekonomiagatik: Parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute.

3- Ekologiagatik: Liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

****Zifra hauek 17-18 ikasturtekoak dira; beraz, orientagarriak besterik ez.**

Ez dugu LIBURUTRUKen parte hartu nahi.

Ikaslearen izen-abizenak: _____

Maila _____

Gurasoen sinadura: _____

4.-LH6ko familiei zuzendutako oharra.

Ekainaren 13an egindako bileran adierazi genizuen bezala, **bihar, ekainak 22**, zuen seme-alabek jasoko duten **Chromebookaren bermea** dela eta, 50 euro kobratuko zaizkizuela gogorarazi nahi dizuegu.



DBH

1.-Noten buletinaren banaketa.

- Ekainaren 21ean 3. ebaluazioko eta ekaineko ohiko deialdiko notak banatuko dira.
- Ekaineko **ez-ohiko** deialdiko noten buletinak **ekainaren 28an** banatuko dira.

Udarregi
IKASTOLA